

Martxoaren 4an zaintzako langileak **GREBARA GOAZ!**



Joan den urtarrilaren 26an, zaintza profesionalizatuen sektoreetako langileok aurrerapauso handi bat eman genuen. **Urtarrilaren 26ko grebak eta mobilizazioek bizitzaren zentraltasuna** eta gure bizitzan zehar guztiok behar ditugun zaintzak **bermatzeko lan egiten dugun pertsonen, gehienak emakumeak, errekonozimendua jarri zuen mahai gainean.**

Nahiz eta pandemiak, deitutako sektoreen kohesio faltak eta ezarritako gutxiengo zerbitzuek oso egoera zaila eragin, ESK-k uste du urtarrilaren 26ko greba aurrerapauso sendo bat izan zela. Alegia, **Zaintza-sistema publiko eta integral bat lortzeko mugimendua eraikitzen jarraitzeko oinarri sendoa, langileak aitortuak izateko eta duintasun-baldintzetan lan egiteko.**

Oinarri horretatik, hasitako bidetik jarraitu behar dugu. **2021eko Martxoaren 4an**, zaintza profesionalizatuen sektoreetako langileok grebarako eta mobilizaziorako deituta gaude berriro. LAB, ELA eta CCOO sindikatuekin adostutako mugimendu batean, **ESK sindikatuak 24 orduko greba legala deitu du honako azpisektore hauetan:**

- **Gizarte-zerbitzu publikoak eta pribatuak**
- **Hirugarren adinekoen egoitzak**
- **Etxez-etxeko laguntza-zerbitzua**
- **Telelaguntza zerbitzua**
- **Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Zentroak**
- **Esku-hartze Sozialeko eta Aisialdi Hezitzaileko Sektoreak**

Lan-sektore horietako langileok grebara deituta gaude berriro. **ESK sindikatuak grebarekin lortu nahi dituen helburuak oso argiak dira:**

- Zaintza Sistema Publiko bat sortzeko borroka egitea, 10.000 lanpostu eragingo lituzkeena.
- Zaintzako zerbitzu eta baliabideen kudeaketa publikoa.
- Sektoreko langileen lan-baldintzak duintzea
- Lan egiten dugun zentro eta zerbitzuen garapen eta duintzea.
- Osasuna eta segurtasuna gure lanpostuetan

Zaintzako langileen artean, sektore bat dago bereziki prekarizatua dagoena: **etxeko langileak**. Uste dugu ez dagoela baldintzarik lankide horiei grebekin bat egin dezaten eskatzeko, baina ezin da ulertu borroka hau etxeko langileak **gizarte-segurantzako erregimen orokorrarekin eta langileen eskubide guztiekin parekatzea defendatu gabe.**

El 4 de marzo **las y los trabajadores de cuidados** **A LA HUELGA!**



El pasado 26 de enero las personas trabajadoras de los sectores de cuidados profesionalizados dimos un paso adelante. **La huelga y las movilizaciones del pasado 26 de enero pusieron en el centro del debate la centralidad de la vida y el reconocimiento de las personas trabajadoras**, mayoritariamente mujeres, que proveemos los cuidados. Cuidados que todas y todos necesitamos a lo largo de nuestra vida.

En un contexto difícil marcado por la pandemia, la falta de cohesión de los sectores y unos servicios mínimos abusivos desde ESK consideramos que la huelga del 26 de enero supuso un paso adelante muy sólido. Una buena base para seguir construyendo un movimiento que nos permita alcanzar un **sistema público e integral de cuidados**; sistema donde las y los **trabajadores estén reconocidas y en condiciones de dignidad**.

Desde esa sólida base tenemos que continuar por el camino que hemos emprendido. El **4 de marzo de 2021** las trabajadoras de los sectores de cuidados profesionalizados tenemos una nueva convocatoria de huelga y movilización. En un movimiento acordado con LAB, ELA y CCOO, **el sindicato ESK convoca nuevamente huelga legal de 24 horas en los siguientes sub-sectores:**

- **Servicios Sociales públicos y privados**
- **Residencias de Tercera Edad**
- **Servicio de Ayuda a domicilio**
- **Servicio de Teleasistencia**
- **Centros de Atención a Personas con Discapacidad**
- **Sectores de Intervención Social y Ocio Socio-Educativo**

Las trabajadoras de estos sectores laborales estamos llamados nuevamente a la huelga. **Los objetivos que el sindicato ESK persigue con esta huelga son muy claros:**

- Pelear por la creación de un Sistema Público de Cuidados que suponga la creación de 10.000 empleos.
- La gestión pública del conjunto de servicios y recursos destinados a los cuidados.
- La dignificación de las condiciones laborales de las y los trabajadores del sector.
- El desarrollo y dignificación asistencial de los recursos y servicios en los cuáles trabajamos.
- Salud y seguridad en nuestros puestos de trabajo.

Dentro de las trabajadoras de los cuidados, hay un sector especialmente vulnerable y precarizado: **las trabajadoras del hogar**. Hemos considerado que no hay condiciones para pedir a estas compañeras que se sumen a estas huelgas, pero su **equiparación con el régimen general de la seguridad social y con el conjunto de derechos** de todas las trabajadoras son cuestiones sin las cuales es imposible entender esta lucha.